

## AURKAKO BIKOIZTASUNAREN GURPILA

Ekaitz Goikoetxea

*Beasain, 15 urte*

Kirolenda bateko apaletan aurkitzen naiz salgai, nire txanda noiz iritsiko den zain. Atetik kanpora begiratu orduko, mutil gazte batek begitan jo nauela ohartu naiz. Besterik gabe, bere hatzapar lazkorretan hartu eta dendariari ordaindu ostean, kiroldegirantz abiatu gara.

Ni, kirol poltsa baten barnean noa, azpi arropa eta palaz inguraturik. Poltsaren zirrikitu batetik, zerua harrika ari dela dakusat. Hodei beltzak pila-tzen hasi dira eta dagoeneko, lehendabiziko ttantto gorpuztu eta hotzak hauteman ditzaket. Horrela, nire gorputza babestu nahian, ozta-ozta, artilezko galtzerdi beroetan ezkutatzea lortu dut.

Ordu laurdeneko bidaia astuna egin ondoren, nire jabea, Unai izeneko mutil lodikote batekin elkartu da kiroldegiko sarreran.

Ordaindu eta jolasteko prestatu orduko, hemen gaude, mahai berde baten altzoan jokoa noiz hasiko. Ohiko beroketen ondoren, lehendabiziko kolpe gogorak hasi dira, ni norgehiagoka honetako tartekaria naizelarik. Alde batetik bestera narabilte, noraezean eta erdi zorabioan.

Lehia latza, gogorra eta orekatsua doa. Biak izerdi patsetan daude; azken ahaleginetan, ping-pong, ping-pong, nire izenaren oihartzuna zabalduz. Zenbait unetan, nik nahita, ertz edo zulotxoren bat

hartzten dut, bata edo bestearen aldeko tantoa sortuaz.

Bi aurpegiko txanpona osotzen dute, batean amorrua eta bestean zoriona isladatzen delarik.

Ordubeteko saio eder baten ostean, barnekaldean haize itogarri bat somatzen hasi naiz.

Poliki-poliki, zulotxo handitzen doa. Bapatean, nire ondoeza eta zorabioak sortaraziz, erabat gaxotu naizen arte. Jokalariek nire egoera ikustean, jokoa bertan behera uztea erabaki dute.

Orduan, Unai eskuan hartu eta Julen Gerrero bailitzan, ostikada indartsu eta bortitz batez, laranja azal baten albora jaurti nau.

Jota nago, gorriak eta bi ikusten ari naiz eta iluntasun amaigabe honetan, ez dut argiunerik bereizten. Egoera zikoitza da, beldurraren marra parezpare dudalarik. Nire bihotzera zuzenean doan sentimendu hilgarria den hau, barneko mina da, sakona, etengabea, amaigabea.

Haize korronte batez baliatu naiz laranja azalaren babesa topatzeko; hemen, nolabaiteko lasaitasuna aurkitu dudalarik. Orduak aurrera doaz eta egunaren azken izpi ahulek ferekatzen didate gorputza.

Gaua luze doa, loak ezin nau bere besoetan kulunkatu eta denetarako astia dut. Nire barne pentsamenduetan murgildurik nagoela, galdera gogaikarri anitz datozkit burura:

«—Zein izango ote da nire etorkizuna?

—Nola amaituko ote dut?

—Zabortegian edo pospolu baten sugarren artean, mutiko baten jakinminari erantzunez?»

Isolamendu jasangaitz honetan, burutazioak zirrargarriak gertatzen zaizkit.

Hain gazte, hain denbora laburrez mundu honetako edertasunak dastatzen eta dagoeneko, heriotzaren hatzaparretan?

Pentsamendu mingotsok mila zatitan banatzen didate bihotza. Nire barnean senti ditzaket nahigabearen ahotsak.

Azkenean, eta nekeak jota, amets hagitx hauskoretan murgildurik, lo kuluska txiki bat egitea lortu dut.

Biharamunean, burrunbada zaratatsu batek iratzarri nau eta sudurreraino iristen zaizkidan hauts mota guztiek, doministikuka jarri naute. Erdi lotan oraindik eta begiak laurden batean zabaldurik, gizon erraldoi bat dakusat esku artean erratz bat duelarik. Hau ikusteak, aurreko pentsamendu krundeletara narama, gorputza oilo ipurdi jarriz.

Bere sareetan harrapatzera nindoanean, ezustean azti baten ikutua balego bezala, haur ile kizkur eta jostari batek emeki-emeki bere eskutxo lehuntan hartu eta begirada iheskor batez, bere galtzetako ezker patrikan sartu nau, larruzko pilota baten aldamenean.

Goiz osoa, zulo beltz honetan igaro dut, pilotaren estualdiak biziz.

Bazkalostean, hemengo mugimenduengatik hauteman dezaket norabaiterako prestatzen ari garela. Baina nora, ordea? Zein izango ote da hurrengo pasadizoa?

Galdera hauen argibidea, denbora gutxi barru izan dut, zirko bateko armailetan aurkitzen naizelarik.

Ikuskizuna paregabea da, aztiak, pailazoak, oihan animaliak, malabariak eta trapezilariak, gure ikusmenaren gozagarri bikainak dira. Une hunkigarri hauetan, nire jabea saltoka eta brinkoka ari da barreari ezin eutsiz.

Ni, kaiola beltz eta itxi honetan ez naiz arras ziur aurkitzen eta Igor makurtzerakoan, sakelean sortzen zaizkion zimurrei etekina atereaz, hemen noa goitik behera eta biraka kontrola erabat galdurik. Biraka eta biraka, azkenean pailazo baten aldagelaraino iritsi naiz. Gela behatzen ari naizela, Purrutx izeneko pailazoa sartu da. Ispilu aurrean jarri eta bere aurpegia janzten duten margoak kentzeari ekin dio, bere zimurrak bistan utziz. Ile bakanak agerian dira. Hau ezustea!!! Pailazo guztiak gazteak zirela uste nuen.

Besaulkian eserita, Bernardo Atxagaren «Behi euskaldun baten memoriak» irakurtzen dagoela, eguzkiaren errainuak nigan isladaturik, Purrutxen aurpegira bideratu ditut, bere arreta nireganatuz. Egoerak harri eta zur utzi du eta begiz jo nauenean, gozokiro bere eskuetan hartu eta ohiko pailazo sudurrean begirunea jarriz, zerbait usnatu duela ohartu naiz.

Pixka batera, eskuetan labana zorroztua hartu eta lokartu gabeko ebakuntza egiten hasi zait. Zenbait momentutan oinazeak jasangaitzak dira, baina aurrez heriotzaren mugan egona naizenez, txist, garraisi eta oihurik ez egitea erabaki dut.

Amaitu du, sudurrean egokitu eta belarritik belarrira zabaltzen zaion irribarrez, ostadarraren laugarren kolorez margotu nau.

Aurrera, nire bizitza Purrutx pailazoaren sudurra estaliz igaro dut; gezurrezko zezenaren aurretik korrika, zapata handiak jantzita, pailazo lagunaren ostikadetatik ihesi, sokasaltoan eta itzulipurdiak eginez, han-hemenka barre eta zoriona zabalduz.

Berriro ere berreskuratu dut haurtzaroko bizi-poza. Inoiz baino pozkorrago dabil ameslari honen bihotza.

Baina dena ez da zoriona, pailazoaren bizitzak bazuen bere alderdi iluna. Gaur arratsean eta saioaldiaren ondoren, Purrutxen masaila bi anpuluk busti dute, emeki-emeki irristatuz ihintza hostoetan bezala.

Zenbait egunetan zehar, gertaera berdina errepikatzen joan da.

Lanbidez besteei barre sorraraztea baldin bada bere zeregina, bihotz barnekaldia malenkoniaz beteta du eta eszenategitik kanpo, beti zurbil eta betilun agertzen da. Ez daki barrerik egiten.

Geroxeago jakin dudan bezala, kate zerraildu honen giltza, gazte denboran maitasuna ukatu zion neskabila batengan dago.

Hau ikusiz, konturatzen naiz ez dagoela arantza gabeko larrosarik, ezta itzal gabeko argitasunik. Azken finean, bizitza gurpil handi bat da eta aurkako bikoiztasunean dager bere edertasuna.

Bertso honetan eta amaitzeko, bizitzak eskaini ohi dituen hagitz aurpegi eta kontrasteak bildu nahi nituzke.

## BERTSOA

Epilogoan egin nahi nuke  
bizitzaren azterketa  
ta arimaren isladapena  
beti aurpegia ezta,  
bizitza jira-biraka doan  
gurdi ardatza da eta  
eszenatoki barnean beti  
pailazoaren olgeta,  
ta hortik kanpo masailak diz-diz  
negar anpuluz beteta,  
Purrutxek barre banatu ohi du  
penak berekin gordeta.